



ARRASATEko KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA



**1. eranskina:
Herritaren parte-hartze
prozesuaren txostena**

2017ko abendua


322 ekarpen jaso genituen 3 egunetan




ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA
1. eranskina: Herritaren parte-hartze prozesuaren txostena



Aportaciones según día de recogida / Ekarpenak jasoketa-egunaren arabera



Aportaciones en función de la edad de lxs participantes | Ekarpenak partehartzaileen adinaren arabera



Roll-up galdera batekin

Plan Estratégico del Deporte de
ARRASATE ko
Kirolaren Plan Estrategikoa

Zer behar du
Arrasateko kirolak?

¿Qué necesita el
deporte de Arrasate?





ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Bi taula jarri genituen testuingurua kokatzeko

Plan Estratégico del Deporte de
ARRASATEko
Kirolaren Plan Estrategikoa



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



2016/2017	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Futbola	199	37	162
Saskibaloia Baloncesto	131	60	71
Atletismoa	52	33	19
Eskubaloia Balonmano	42	-	42
Judo	24	19	14
Taerindularitza Ciclismo	23	1	22
Errugbia	22	1	21
Gimnasia Erritmikoa eta Aerobic	22	22	-
Mendi-zelestatuena Montarismo	13	4	9
Erraketa Raqueta	11	5	6
Pilota Pelota Vasca	10	-	10
Xakea Ajedrez	4	-	4
Bocchia	3	-	3
Triatloia	2	-	2
Guztira	558	173 %31	385 %69

Nerabeen (+14-17 urte) kirol-jarduera antolatua Arrasaten: kirol-klubak Práctica deportiva organizada de adolescentes (+14-17 años) en Arrasate: clubes deportivos

2016/2017	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Mendi-zelestatuena Montarismo	871	223	648
Futbola	122	41	81
Taerindularitza Ciclismo	82	1	81
Triatloia	49	2	47
Saskibaloia Baloncesto	33	-	33
Eskubaloia Balonmano	31	-	31
Errugbia	29	-	29
Bocchia	23	-	23
Xakea Ajedrez	22	-	22
Aireko kirolak Deportes aéreos	21	-	21
Erraketa Raqueta	14	3	11
Atletismoa	7	1	6
Pilota Pelota Vasca	2	-	2
Guztira	1.306	271 %20	1.035 %80

2014/2015 ▶ 1.129
2015/2016 ▶ 1.391

Helduen (+18 urte) kirol-jarduera antolatua Arrasaten: kirol-klubak Práctica deportiva organizada de adultos/as (+18 años) en Arrasate: clubes deportivos





ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA
 1. eranskina: Herritaren parte-hartze prozesuaren txostena


Plan Estratégico del Deporte de
ARRASATE ko
 Kirolaren Plan Estrategikoa




ARRASATEKO UDALA
 AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA
1. eranskina: Herritaren parte-hartze prozesuaren txostena




ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA
1. eranskina: Herritaren parte-hartze prozesuaren txostena



Bizikleta-bideen sarea eta gune berdeak — Red de carril bici y zonas verdes

Hirigune eta naturgunean Incremento de la práctica
antolatu gabeko deportiva en espacios urbanos y natu-
kirol-jarduera areagotzea rales de forma no organizada

ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA
1. eranskina: Herritaren parte-hartze prozesuaren txostena




Arrasate inguruko mendi-bideak — Senderos del entorno de Arrasate

Arrasateko ingurune naturalak kirol-jarduerarako erabilera errazten du

El entorno natural de Arrasate facilita su uso para la práctica deportiva


ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA
1. eranskina: Herritaren parte-hartze prozesuaren txostena




Korrikalariak Arrasaten
(iturria: Strava)

Corredores/as en Arrasate
(fuente: Strava)

Kirol jardueren datuak beste taula batean





**Haur eta nerabeen
(7-13 urte) kirol-jarduera
antolatua Arrasaten**

Práctica deportiva organizada
de niños/as y adolescentes
(7-13 años) en Arrasate

2016 / 2017	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Futbola	199	37	162
Saskibaloia Baloncesto	131	60	71
Atletismoa	52	33	19
Eskubaloia Balonmano	42	-	42
Judo	24	10	14
Txirrindularitza Ciclismo	23	1	22
Errugbia	22	1	21
Gimnasia Erritmikoa eta Aerobic	22	22	-
Mendizaletasuna Montañismo	13	4	9
Erraketa Raqueta	11	5	6
Pilota Pelota Vasca	10	-	10
Xakea Ajedrez	4	-	4
Boccia	3	-	3
Triatloia	2	-	2
Guztira	558	173 · %31	385 · %69

**Nerabeen (+14-17 urte)
kirol-jarduera antolatua
Arrasaten: kirol-klubak**

**Práctica deportiva organizada
de adolescentes (+14-17 años)
en Arrasate: clubes deportivos**


ARRASATEKO KIROLAREN PLAN ESTRATEGIKOA
1. eranskina: Herritaren parte-hartze prozesuaren txostena

2016 / 2017	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Mendizaletasuna Montañismo	871	223	648
Futbola	122	41	81
Txirrindularitza Ciclismo	82	1	81
Triatloia	49	2	47
Saskibaloia Baloncesto	33	-	33
Eskubaloia Balonmano	31	-	31
Errugbia	29	-	29
Boccia	23	-	23
Xakea Ajedrez	22	-	22
Aireko kirolak Deportes aéreos	21	-	21
Erraketa Raqueta	14	3	11
Atletismoa	7	1	6
Pilota Pelota Vasca	2	-	2
Guztira	1.306	271 · %20	1.035 · %80

2014 / 2015 ▶ 1.129
2015 / 2016 ▶ 1.391

**Helduen (+18 urte)
kirol-jarduera antolatua
Arrasaten: kirol-klubak**


**Práctica deportiva organizada
de adultos/as (+18 años) en
Arrasate: clubes deportivos**



Ekarpenak egin zituzten 2 eremutaz




Aportaciones por ámbitos | Ekarpeak esparruen arabera




- Instalaciones, equipamientos | Instalakuntzak, ekipamenduak
- Servicio, actividades, gestión | Zerbitzua, jarduerak, kudeaketa

Zertaz hitz egin ziguten?


Aportaciones en torno a las instalaciones y los equipamientos | Instalakuntza eta ekipamenduen inguruko ekarpenak




Aportaciones en torno a los servicios, actividades, gestión... | Zerbitzuen, jardueren, kudeaketaren, etab. inguruko ekarpenak



Ekarpenak egin zituzten 6 populazio-talde kontuan hartuz



Aportaciones en función del grupo de población al que se dirigen | Ekarpenak, helburu duten biztanle-taldearen arabera



Musakolarako partaidetza proposamenak

1. Txostenaren helburua

Txosten honen helburua da, hain zuzen, Musakola kiroldegi berrirako arkitektura proiektu posible baterako premien programan txertatu beharreko edukien lehenengo hurbilketa egitea.

Garrantzitsua da nabarmentzea txosten honek ez duela ordezkatzeko premien programa bat. Gure ustez, modu sakon eta zehatzago batean egin beharko da hori, kiroldegi berri baterako proiektuaren alde aurretiko urrats gisa.

Helburua izango da, beraz, programa horren osaketa abian jartzea ahalbidetuko duten lehenengo urratsak egitea, Arrasateko herritarren eta kirol eragileen eskaerak eta proposamenak bilduz. Bide beretik, Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoa 2017-2027 bideratzen duten gidalerroak bilduko ditu; era horretan, eraikinaren programak eta Planak harreman logikoa izango dute udalerrian onartutako kirol ereduaren baitan.

Premia horiek oinarri hartuta, honako txosten hau osatzeko prozesu hauetako proposamenak eta ekarpenak jaso dira:

- Partaidetza dinamikak, Arrasateko eragileekin eta kirol elkarteekin.
- Herritarren partaidetza dinamikak, Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoa osatzeko prozesuan zehar gauzatutakoak.
- Proposamenak egiteko saioa: "Herritarren premiak eta kirol espazioak", 2017ko azaroaren 30ean egindakoa.
- Arrasateko Kirolaren Plan Estrategikoa bera, etorkizuneko jardunen esparrua eskaintzen duena, espero diren etorkizuneko joeretan oinarrituta.

2. Instalazioen egoera orokorra

Instalazio berrien premia eta proposamen zehatz batzuez harago, ekarpen gehienak Musakolako instalazioaren egoera orokorrean oinarritu dira (kritikak, hein handi batean).

Musakola kiroldegia instalazio zaharkitutzat jo da, aldageletan, aretoetan eta batez ere igerilekuan gabeziak dituena. Mantentze lanetan ahalegin handiagoa egin behar zela zioten kritika batzuk alde batera utzita, zaharkituta dagoen kiroldegi bat dela ondorioztatu da eta, horrenbestez, mantentze lan sakona behar duela.

Zaharkitzapen hori agerikoa da, halaber, konplexuaren diseinuan bertan; eta horrek mugak dakartza bertan egiten diren jardueren eta zerbitzuen kudeaketa hobea gauzatzeko.

Ekarpen askok ardaztat jo dute lehendik dauden espazioak, aretoak, aldaketak eta ekipamenduak hobetzea, **konfort termikoari, aireztapenari, irisgarritasunari eta egoera orokorrari** dagokienez.

Esan bezala, **eraikinaren zaharkitzapen hori dela tarteko, mantentze premia handiak** daude, eta eskaera askok aipatzen dituzte premia horiek.

Kirol elkarteek egindako eskaerak eta herri partaidetzan oinarritutako dinamiketan lortutakoak oso antzekoak dira. Instalazioen mantentze lana ere ardatz nagusietako bat da elkarteen proposamenetan, nahiz eta, kasu honetan, proposamen gehiagok aipatzen dituzten instalazioen kudeaketa, hitzarmen premia eta ekipamendu berriak jartzeko ideia batzuk (aurreragoko ataletan landuko ditugunak).

"Mantentze arazoak: Udalarekin komunikazio kaskarra, erantzuna berandu dator eta harremana enkistatu egiten da".

Bestalde, elkarteek aipatu dute euren jarduerak egiteko erabiltzen dituzten instalazioek gaur egun dituzten homologazioak betetzeko premia dagoela; izan ere, egokiak ez direnez, lesioak eragiteko arriskua dago.

3. Instalazioen kudeaketa

Proposamen asko instalazioen kudeaketarekin, harpidetza ereduarekin, zerbitzuen ordaintzarekin... lotutakoak izan dira.

Auzi horiek hemen txertatu ditugu, kiroldegi berri bat diseinatzean kudeaketa eredu aintzat hartu behar delako; izan ere, kudeaketa eredu horren arabera diseinatu beharko dira **instalazio berrirako sarbideak, sarbide kontrola, premien programa** eta hainbat espaziotarako **zirkulazioak**.

Aldi berean, instalazio berri batek **sarbideak kontrolatzeko eta kudeatzeko informatika sistema moderno** bat eduki beharko du, zerbitzuen tarifazioan eta kudeaketan malgutasun handiagoa emango duena.

Kirol konplexuaren diseinu hobek (sarbide eta zirkulazio egokiekin) eta sarbidea kontrolatzeko sistema moderno batek ez dituzte konponduko kudeaketari buruzko eskaera guztiak; alabaina, proposamen asko abian jartzea erraztuko dute. Prezio mailei buruzko proposamenak, berriz, beste arlo batzuetan hartu beharko dira aintzat.

Kirol elkarteek **malgutasun handiagoa** eskatzen dute **ordutegien kudeaketan**; izan ere, iruditzen zaie gaur egungo sistemak mugatu egiten dituela jarduerak programatzeko aukerak. Gainera, iruditzen zaie beharrezkoa dela instalazioak erabiltzeko hitzarmenak idaztea eta sinatzea. Horrek segurtasun eta egonkortasun handiagoa emango die euren etorkizunaren plangintza egiteko.

Musakolako instalazioak erabiltzen dituzten ikastetxeek, berriz, gogobetetze handia erakutsi dute, ordutegien kudeaketaren malgutasunari dagokionez. Hala izan liteke, beharbada, ordutegiak egonkorragoak izategatik eta eskaera gutxieneko orduetan egiten direlako.

4. Igerilekuak eta gune hezea

Herri partaidetzan oinarritutako prozesuan bildutako ekarpen gehienak igerilekuei eta gune hezeari buruzkoak izan dira.

Igerileku estalian **ur geruza handiagoa izateko eskaera ugari** bildu dira, bai eta **sauna handitzeko eta jacuzzi bat jartzeko** eskaerak ere.

Proposamenetako batzuek diote kanpoko igerilekuari estalki bilkorra jartzeko interesa dagoela, neguan ere erabili ahal izateko. Irtenbide bat izan liteke hori, baina bi igerileku irekita edukitzeak ekar dezakeen kostua handia litzateke eta, beraz, ez dirudi oso erabaki gomendagarria. Gainera, igerileku estali berri bat edukitzeko premia dagoela erabakiz gero, ez litzateke oso gomendagarria biak Musakola konplexuaren baitan egotea.

Uda garaian igerileku estaliak irekita edukitzeko eskaera batzuk ere jaso dira. Eskaera horiek logikoagoak dira eta, beraz, halaxe egiten dute udalerrri askotan. Bi igerilekuen erabilerak oso bestelakoak dira. Horregatik, beste udalerrri batzuetan, kanpoko igerilekuak astialdi eta josteta jardueretarako erabiltzen dira, eta barnekoek, berriz, kirol funtzioa betetzen jarraitzen dute.

Kanpoko igerilekuei buruzko proposamenak ere jaso dira: **txirrista berriak** ezartzea eta **berdegunea handitzea**.

5. Aretoak eta kantzak

Aretoei eta kantxei buruzko proposamenek ere ildo nagusi berari jarraitzen diote: lehendik daudenen **egoera hobetzea eta konforta areagotzea**, eta kasu batzuetan, horien edukiera **handitzea**.

Bada behin eta berriz errepikatzen den proposamen bat: **gimnasio berri bat jartzea, haurren jarduerari bideratutakoa**.

Berrikuntzei dagokienez, **tatamia berritzea** da gehien nabarmendu dutena, bai eta fitness gelako **makinak** berritzearena ere.

Tenis kantzetako ikusgaitasunarekin lotutako arazoak ere aipatu dira berriz; ez baita ondo ikusten, nola eguzkiak gogor jotzen duelako, hala argiztapen gabezia dagoelako.

6. Aldagelak eta dutxak

Aldagelak eta dutxak goitik behera hobetzea eskatu da, **kopuruari, tamainari, irisgarritasunari zein konfortari** dagokienez.

Proposamen interesgarria da; izan ere, kiroldegi askotan, **adingabeentzako aldagela espezifikoak** jartzen dituzte, non helduak laguntzera baino ez diren sartzen; ez aldatzera edo dutxatzera.

7. Gogoetak

Plangintza estrategikorako prozesuaren baitan partaidetza bileretan, saioretan eta dinamiketan bildutako ekarpenen ikuspegi orokorraren arabera, lehendik dauden instalazioak hobetzean eta horietako batzuk handitzean (batez ere igerilekua) oinarritzen da eskaera nagusia.

Kiroldegi berri bat eraikitzea erabakitzen bada, eskaera analisi hori sakon aztertu beharko da, eta sakon aztertu, halaber, beste kirol instalazio batzuetan orain dagoen eta etorkizunean egongo den eskaintza; era horretan, **premien programa** egoki bat egin ahal izango da, eta horren gainean landu etorkizuneko konplexuaren irtenbide arkitektonikoa.

Premien programa hori osatzeko, proposatutako eskaerez gainera, garrantzitsutzat jo dugu alderdi hauek aintzat hartzea:

- **Demografia:** herritarren zahartzea nabarmena da, eta aurrerantzean ere horrelakoxe joera izango dela aurreikusi da; horregatik, herriko zerbitzu guztiek hartu beharko dute aintzat, eta ahal bada, kirol gehiago txertatu.

Herritarren zahartze tasa eta adineko pertsonen artean kirol jardunak izan duen gorakada, hain zuzen, etorkizuneko kirol ekipamenduetan ezinbestean ispilatu beharreko faktoreak dira. Gaur egun eskaera handia duten instalazio eta espazio batzuek (kirol federaturako zelaiak eta kantxak) beherako joera erakutsi dute, eta jarduera maila gutxitu egingo dela aurreikusi da; bai modalitate berriak azaldu direlako, bai demografiaren bilakaeragatik.

Kirol instalazio berri bat eraikiz gero, espazio malgu gehiago eduki beharko ditu, herritar guztiei irekita egongo direnak eta askotariko erabilerak izango dituztenak. Bestalde, sarbidea kontrolatzeko sistemak eta zirkulazio sistemak malguago jokatu beharko dute kirol gehien egiten den orduetan.

- **Inguruarekiko harremana:** Azken hamarkadan asko ugalduta da espazio libreetan egiten den kirol jarduna; nola hiri inguruneetan, hala ingurune naturaletan. Arrasateko kirol jardunak ere joera horixe izan du.

Kirol konplexu berri bat eraikiz gero errealitate horri erreparatu beharko zaio, eta bere diseinua kirol jardueren fisikoaren dinamizatzailerik gisa proposatu beharko da, nola bere instalazioetan, hala hortik kanpo. Geroz eta kiroldegi gehiagok ateratzen dituzte euren jarduerak kanpora, eta kanpoan egiten dituzten jardueren laguntza zerbitzua ematen diete.

- **Deszentralizazioa eta integrazioa:** Plangintza Estrategikorako prozesuan zehar toki handia izan du kirol zerbitzu deszentralizatuen eskaerak; horregatik, premien programa osatzean, oso kontuan hartu beharreko ezaugarria litzateke.

Beharbada, Musakolak izango du lehentasuna, Arrasateko Kirol Sistemaren baitan duen garrantzia eta adierazgarritasuna dela tarteko. Alabaina, ezin dugu arriskatu eta herritar gehienek aburuz zentralizatu egia dagoen eredu bat indartu.

Musakola posible berri baten premien programa bat osatzean, udalerriko beste toki batzuetan egin litezkeen hornikuntza berriak ere kontuan hartu beharko dira, sare osotu bat eratzeko.

Udalerririk ez dute aurreikusi ekipamenduak sare moduan hornitzearena, eta horrek asko erraztuko lieke hainbat kirol jardueretarako hurbileko sarbidea izatea. Udalerririk horietan, ordea, kirol konplexu bakarrarekin eskaera guztiei erantzutea erabaki zuten eta, horren ondorioz, herritar ugari oso urrun dituzte ekipamendu horiek.

Partaidetza prozesuan jasotako proposamenak

Kudeaketa: harpidetzak eta prezioak

Sarbideak, zirkulazioak eta espazioak diseinatzean kontuan hartu beharrekoak.

- Ekintza gehiago eta aukera gehiago kirola egiteko, ekonomikoki batez ere
- Precios asequibles
- Entradas particulares muy caras
- Precio de deporte escolar excesivo
- Subvencionar a jóvenes que participan en clubes
- Gazteentzako kirola merkeagoa izatea
- Reducir las tarifas para que tenga acceso todo el mundo
- Instalazioak merketu eta jendea gehiago animatu kirola egitera
- Precios más asequibles
- Uretako eta lehorreko karnetak atera beharra: karnet bakarria izan beharko luke eta merkeagoa
- Carnet familiar más barato
- Judo egiteko kuotaz gain, plus bat ordaindu behar da uretako bazkidea izatearren
- No cobrar más por ser de otro pueblo
- Kuota bateratua egotea
- Merkeagoa izatea: Arrasaten kirola egitea oso garestia da
- Subvencionar a distintos colectivos que están federados
- Precio merkeagoak
- Cuotas más baratas para los cursillos
- Igeriketa egokituaren prezioa oso garestia
- Bazkidetza tasa egokitu
- Cursos más baratos a los abonados a seco+mojado
- Abono unificado (en lugar de dos abonos, uno para seco y otro para mojado)
- Karnet amankomunatu berriz aktibatu
- Cuota excesiva para un polideportivo municipal
- Bonos y cuotas muy caras
- Familia ugariari deskontua, errenta kontutan hartu gabe (edo muga handitu gaur egungo egoera normal batera)
- Urteko kuota murriztea
- Precio excesivo de las entradas y los abonos
- Eliminar abono por separado (seca y húmeda)
- Garestiegia da (Aretxabaletako prezioekin konparatuta adibidez)
- Unificar abono, no separar húmedo-seco
- Abono bateratua
- Zerbitzu publikoa izanik abonua oso garestia da
- Hacer deporte en Arrasate es caro
- Fragmentar abonos según se vaya a utilizar

- Destinar más dinero al deporte
- Precio para entrar al rocódromo sin pagar el resto
- Abono mancomunado con el resto de pueblos del valle
- Ayudas económicas para actividades de personas mayores

Espazioen kudeaketa

Sarbideak, zirkulazioak eta espazioak diseinatzean kontuan hartu beharrekoa.

- Musakolako kantzatan entrenatzeko oso berandu da gazteentzako
- Musakolako kantzak libre moduan erabilgarri izatea
- Udan barruko pizsinak zabalik mantendu
- Udan barruko igerilekua zabalik egotea
- En verano no cerrar la piscina interior
- Abrir la piscina interior en verano
- Barruko pizsina zabaltzea udan
- Udan barruko pizsinak zabalik igeri egiteko, eta kanpokoak haurrak jolasteko
- Gimnasioan 15 urterekin sartu ahal izatea
- En verano mantener abiertas las piscinas del interior
- Udan barruko igerilekua ez itxi
- Udan kanpoko pizsina zabaltzen denean barrukoa zabalik mantendu (goizean edo gutxienez aukera eman)
- Judon haurrak sartzen direnean, gurasoak sartu ahal izatea nahiz eta bazkide ez izan
- Igande goizetan frontoiko gimnasioa irekitzea
- Herri inguruan mendi martxak egiteko ibilbide egokituak

Igerilekua eta gune hezea

Barneko igerilekua handitzea eta hobetzea:

- Pizsina gune bakarra, Arrasate osorako nahikoa?
- Barruko pistinetan beste pistina bat jartzea
- Igerileku bat gehiago behar dugu
- Pizsina handiagoa
- Igerileku gehiago
- Pizsina bat gehiago
- Piscina más grande: con los cursillos no queda sitio en las calles libres
- Piscina más grande
- Barruko igerilekua handiagoa
- Igerilekuan erabiltzaile gehiegi: igerileku bat Iturripen
- Pizsina handiagoak
- Barruko eta kanpoko pistinak handiagoak egin
- Igerileku handiagoa

- Pistina saturatuta dago, igeri egiteko kale gutxiegia daude
- Barruko igerilekuak kale gehiago behar ditu
- Piszina oso beteta egoten da
- Barruko pistina handiagoak
- Musakolako eremu lehorreko eta bustiko instalakuntzak txikiak eta murrizak geratu dira
- Musakola hobetu, piszina eta aldagelak
- Barruko pistinak hobetu
- Pistina hobeto garbitu
- Usuaría silla de ruedas: en Musakola adaptar los usuarios y habilitar un espacio para guardar la silla mientras estoy en la piscina

Kanpoko igerilekua handitzea eta hobetzea:

- Piscina exterior más grande
- Piscinas exteriores más grandes
- Kanpoko pistina handiagoa
- Kanpoko igerilekuan posible den heinean berdegunea handitzea
- Más zona ajardinada en las piscinas exteriores
- Kanpoko igerilekuan kerizpe gehiago
- Kanpoko pistinetan leku gehiago toailak jartzeko
- Mejorar el césped de la piscina exterior
- Igerilekuan umeeek koltxonetekin jolasteko aukera izatea

Barneko igerilekua udan ere irekitzea:

- Udan barruko igerilekua zabalik egotea
- En verano no cerrar la piscina interior
- Abrir la piscina interior en verano
- Barruko piszina zabaltzea udan
- Udan barruko piszinak zabalik mantendu
- Udan barruko piszinak zabalik igeri egiteko, eta kanpokoak haurrak jolasteko

Kanpoko igerilekua estaltzea:

- Udako igerilekuak estali, neguan ere erabilgarri izan daitezen
- Cubrir las piscinas exteriores: cerrar en invierno y abrir en verano

Sauna handitzea eta hobetzea:

- Sauna berritu eta handitu
- Mantenimiento más adecuado de las instalaciones: reparar la sauna y renovar el material, piscina, gimnasio, vestuarios
- Saunara sartu baino lehen iturri bat jarri
- Poner una fuente en la zona de saunas
- Sauna berriztu eta bainera hotza ipini
- Sauna txikiegia

Ekipamendu berriak igerilekurako eta gune hezerako:

- Pistinan tranpolin bat
- Pistinan tranpolin bat
- Tranpolin berriak pizinan
- Pistina bat txikiparkearekin
- Tobogan handiak
- Pistinan tranpolin berriak
- Tranpolinak pistinan
- Tranpolin berriak pistinan
- Txikien pizina Aretxabaletakoa bezala izatea
- Txirrista berri bat
- Txirrista bat
- Tranpolinak
- Pistinan tranpolin tamaina desberdinak
- Jacuzzi
- Jacuzzi bat, kalitate onekoa
- Jacuzzi handi bat denontzako

Aretoak eta kantxak

Aretoak handitzea eta hobetzea:

- Mantenimiento más adecuado de las instalaciones: reparar la sauna y renovar el material, piscina, gimnasio, vestuarios
- Musakolako eremu lehorreko eta bustiko instalakuntzak txikiak eta murrizak geratu dira
- Jinasio handiagoa 13 urtetik gorakoentzako
- Jinasio handi bat
- Jinasioa
- Mejorar el gimnasio, instalar máquinas nuevas
- Gimnasioko makinak, instalazioak, bentilazioa eta garbiketa hobetu
- Fitness gunea berriztea

- Spinning gela eroso
- Fitness gela bat, makinarik gabe eta ispiluekin
- Makina berriak jarri edo daudenak konpondu
- Mejorar la limpieza de la zona de pesas
- Gimnasioan makinak eta zintak berrizteko plan bat egin, sarriago aldatu
- Espejos, a ser posible en las 4 paredes, en salas de fitness, gimnasio y sala aeróbica
- Gimnasioko materialean bariedade gehiago
- Mejorar máquinas
- Renovar instalaciones del gimnasio, máquinas, etc.
- Gimnasioko makinak berriztu eta ergonomia hobetu
- Climatizar la sala de zumba (hace calor)
- Musakolako gimnasioa txikiegia da: nahiz eta Uharkapeko instalazioak zabaldu, ez da egoera arindu
- Muskulazio gela berriztu
- Ikastaroetako material egokia eta berritua
- Una sala para poder estirar y hacer ejercicios de fitness
- Musakolako alde lehorreko dutxak eta aldagelak berriztu
- Renovar las máquinas de las salas de musculación y cardio
- Monitor de fitness todo el año

Kantxak hobetzea:

- Futbito, eskubaloi eta saskibaloian ibiltzeko kantxa aukera gehiago (klubentzako batez ere)
- Mejorar las canchas
- Musakolako kantxatan entrenatzeko oso berandu da gazteentzako
- Musakolako kantxak libre moduan erabilgarri izatea

Erraketarekin aritzeko instalazioak:

- Mejorar instalaciones de raqueta
- Mejorar los problemas de visibilidad en las pistas de tenis, tanto por exceso de sol como por falta de alumbrado
- Mejorar la temperatura de las canchas de squash
- Mejorar luces en pistas de tenis
- Teniseko pistetan argiztapena hobetu
- Padel pista gehiago eta kristalarekin
- Instalar malla en el hueco entre las pistas de padel y las de tenis

Gimnasio eta tatami berriak:

- Txikientzako jinasio bat
- Gimnasio berria umeentzat
- Gimnasiorako tatami bat
- Gimnasio bat txikientzat
- Umeentzat jimnasioa
- Umeendako jinasio bat
- Txikientzako jinasio txiki bat
- Tatami berria
- Tatami berri bat
- Tatami berri bat
- Tatami berriak

Beste batzuk:

- Skatepark estali, bustita ez da erabilgarria
- Eskalada tokia

Aldagelak eta dutxak

- Mantenimiento más adecuado de las instalaciones: reparar la sauna y renovar el material, piscina, gimnasio, vestuarios
- Musakola hobetu, pizina eta aldagelak
- Usuaría silla de ruedas: en Musakola adaptar los vestuarios y habilitar un espacio para guardar la silla mientras estoy en la piscina
- Aldagela handiagoak (ikastaroen amaieratan haur eta zaintzaileekin gainezka)
- Vestuarios más grandes, se colapsan muchas veces
- Arreglar duchas: temperatura, caudal
- Aldagela hobeak, dutxa hobeak
- Aldagelatan takila eta pertxa gehiago
- Taquillas digitales
- Aldagelak zaharkiturik daude, ur beroaren instalakuntza lotsagarriak
- Dutzak hobetu: presioa, instalazioa...
- Aldagelak berriztu
- Aldagelak hobetu: dutxetako presioa, garbitasuna...
- Reformar vestuarios, duchas, baños...
- Separar vestuarios para adultos y niños (problemas con las personas cuidadoras)
- Limpieza de las duchas y los baños en verano
- Mejorar la limpieza de las duchas en verano
- Con mucha gente falta presión de agua

- Cuando hay mucha gente falta presión en las duchas
- Aldageletako instalazioak eta garbiketa hobetu
- Aldagelak bereziak egin: familiarrak, haurrentzat egokituak
- Instalakuntzak hobetu: Antoñako lurra, Musakolako lurra, Iturripeko lurra, aldagelak eta goterak
- Takila handiagoak
- Aldagela familiarra eta mixtoa (aitak edo amak haurra aldatzeko)
- Más duchas privadas
- Aldagela duinak
- Aldagelak konpondu
- Dutextako uraren presioa handitzea eta beroagoa irtetea
- Igerilekuko aldagelak berritzea
- Dutexak berriztu
- Renovar vestuarios
- Adaptar vestuarios a usuarios de natación adadada: vestuarios sin calefacción, duchas inapropiadas para silla de ruedas, bancos inapropiados para cambiar a personas con movilidad reducida
- Ilea lehortzeko sekadore berriak
- Igerilekuko aldagelak berriztu
- Igerilekuko aldagelatan garbiketa sakona egin
- Haurren aldagelak behar dira
- Aldageletako dutexetan uraren tenperatura hobeto regulatu